

IRAKURLEAREN TXOKOA

Ermuko txistulari guztioi

1940. urte inguruan, ohitura zen jai eta igande arratsalde guztietan txistuaren soinua entzutea gure herriko plazan. Santixauak ospatzeko ere, beste herri batzuetako txistulariak gonbidatzen ziren.

Urteak pasatu ahala ohiturak aldatuz doaz, eta gutako askok beste era bateko doinuak entzutea nahiago izaten dugu. Jaiak, honen adierazgarri izaten dira...

Ohiturak aldatzen dihoaztela

rien lagungarri izatera mugatzen dela gainera uste dugu.

Zuetako batzuoi agian, benetan gustatzen zaizue txistua, silbotea edo atabala jotzea. Hala bada, zergatik ez dugu txistulari talde bat egiten Erman? Zergatik ez dugu gure taldekeria (Txindurri, Gure Ametsa eta Arkaitz) alde batera uzten benetako talde bakar bat egiteko? Gero, bakoitzak bere dantza taldean jarrai dezake, baina herrian txistulari talde bat dugula jakinik... aintzina bezela, herriko plazan



Argazki hau, Ermuko Txistulari Taldearen azken lekukoa izatea nahi al duzu?

onartu beharrekoa bada ere, gero alferrikakoa izaten da betiko buruhauste euskaltzale eta filosofiko hoiek egitea... "euskal kultura galtzen ari dela", edo "gure herrian euskal kulturaren gaintik beste batzuk daude"la. Beste ohitura batzuk geureak baino garrantzi handiagoa izatearen errua euskaldunona da gehienbat. Gure burua euskaltzaletzat jo arren, ohituren iraupena arriskuan ikusi arte ezer gutxi egiten dugula onartu beharko genuke.

Beharbada aitorten honek bultzatu gaitu eskutitz hau idaztera.

Erman txistuari garrantzi gutxi ematen zaiola eta gehienetan, dantza-

txistuaren soinua entzun ahal izango dugula jakinik...


Ez duzue aitzakiarik. Instrumentu batzuk behintzat baditugu, eta jadanik sartu dugu muturra Udaletxean... jendea eta borondate ona besterik ez dugu behar!

Informazioa behar baduzue, galdetu mesedez Ermuko Musika Eskolan, txistua irakasten duenarengaitik. Laister arte, zuen zain gaude eta!

Ermuko Txistulari Talde txiki bat

HARATEGIA - URDAITEGIA

P. ARAMBERRI



- * Bertoko txahala
- * Idi txuleta
- * Berton hildakoa
- * Urdai egosia
- * Etxeko txorizua
- * Txistorra

Kantabria, 1 Tfnoa: 17 64 65



Pub

SCORPIO

Zubiaurre, 21 behea
ERMUA

ZABALA
BURDINDENDA

ETXE HORNIDURA
BRIKOLAJEA
OPARIAK
ELEKTRIZITATEA

Zubiaurre, 27
Tfnoa. 17 09 17

EGAN
BIDAIK



Marqués de Valdespina, 12 - behea
Telefonoak.- 17 64 80 eta 17 64 81